...eta kitto!
901 zkia.
2014-IX-26



# BERBETAN

## Euskeraz primeran!!!

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
Tel: 943 70 25 40
KEIN GROUP
C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com

KOMUNITATEAK
- Auzo komunitaeen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA
- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



#SagardoEguna
EIBARREN
antolatzailea:
...eta kitto!
Euskara Elkartea
EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA
Urriak
4
zapatua
SAGARDO EGUNA
UNTZAGAN
12.00-14.30
19.00-amaitu arte
ALORRENEA ALTZUETA BARKAIZTEGI BEGIRISTAIN EGI-LUZE GARTZIATEGI GAZTAÑAGA GURUTZETA ISASTEGI OLAIZOLA SARASOLA ZAPIAIN ZELAIA
Hauek izan dira aukeratuak
Probarik gogorrenak gainditu dituztelako
Kalitate eta profesionaltasunean nagusi direlako
Horregatik daramate Sagardoen Euskal Selekzioaren txapel beltza
laguntzaileak:
EIBARKO UDALA
GORENAK




...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua
ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.
– Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.
– Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.
elkartea@etakitto.com

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KARNAZERO.- Harakina. *"Karnazeruak egiñ bihar izaten dau, txahala erosi, txahala eratxi, txahala txikittu eta txahala saldu".*
KARRAJO.- Pasilloa, pasabidea. *"Ataraizuz honek umiok etxetik, egun guztian karrajuan hankapetik kendu eziñik ditturaz ba".*

## ASTEAN ESANAK

"Bikotearekin apurtzeko ez dago whatsapp-a baino ezer hoberik. Garrantzitsuena komunikatzea da. Kale egiten dugu perfekzioaren bila gabiltzalako beti. Geure burua behartzen dugu `aurpegira esan behar diot´ ideiarekin. Horrela ematen ditugu hilabeteak edo urteak barnean duguna kaleratu barik. Ez dago lengoia idatzia baino hoberik: gauza zailendako, oharrak edo e-mailak "

(Rafael Santandreu, psikologoa)

"Nire burua nirea bakarrik da eta bertan ez da inor sartzen. Balenciagaren modelo bat hartzen badut, ikertu egiten dut bere bolumenak zelan funtzionatzen duen ulertzeraino. Gero, hortik abiatuta, beste zeozer eraikitzen dut: ez da kopia bat izango, baizik-eta nire eremura eramango dudan abiapuntua eta garatzen joateko ikasteko modua. Eta gauza bera nire diseinuekin: euretatik abiatu, gero eta erotuago bihurtzeraino"

(Roberto Lopez, diseinatzailea)

"Geure buruari galdetu beharko genioke erabakigunea hemen izan balute zein izango zatekeen orain itxita dauden metalgintzako enpresa askoren garapena. Aski bedi datu bat: Euskal Herriko eskualdeen erdiak baino gehiagok metalgintzako jarduerak ditu egun. Hainbat eskualdetan industrializazio indizea da lurraldeari eusten dion jarduera nagusia"

(Imanol Esnaola, Gaindegia)

# eskutitzak

### ERAGOZPEN HANDIAK AMAÑAKO HERRITARRENTZAT

Ez dakit erreklamazio bat edo gogoeta bat den ondoko hau. Amañako auzokide bat naiz: agian horrekin erdia esana dago! 2 urte pasa dira obrak hasi zirenetik eta polita geldituko omen da, horren dudarik ez dut. Aldaketa ugari nozitu ditugu, errepideak moztu dituzte, zaratak, ... Autoentzat irtenbide bat egin zuten, baina oinezkoei ez digute gauzak asko erraztu. Orain argiak itzali dizkigute Legarretik sartzen garenoi; laster Amaña kalea, orain arte oinezkoentzat zen kalea, autoentzat ere irekiko da eta... inork infomatu digu? Ba **ez**. Munizipaletara deituz gero, Urbanismora deitzeko edo erreklamazio bat jartzeko erantzuten dute; hori ez ei da euren arazoa eta eurek ez ei dakite ezer. Segurtasuna tartean dela deritzot nik neure uste apalean; baina, dirudienez, neure ustea bakarrik da. Ez da lehen aldia gu zuzenean obrako langileengana goazela eskean edo galdetzen. Baina gu al gara eurekin hitz egin behar dugunak? Ez luke Udalak intermediario lana egin beharko? Gainetik, Udaleko departamentuen arteko harremana zalantzan jartzen dut. Zenbat abisu pasako zituzten munizipalek Urbanismora eta ez dugu emaitzarik ikusi? Edo, agian, ez dira abisuak pasatzen? Zein da arazoa? Bien bitartean, Amaña eta inguruko herritarrek gure eguneroko bizitza egiteko eragozpen pila dugu. Oraindik ere ilunpetan etorri behar dugu etxera eta alde bietara tentuz begiratu behar dugu peoratik irten aurretik.

**Amañako auzokide bat**

### ESCRIBANO, GAZTEOK FRACKING-ARI EZ!

Arrateko jaiak baino pare bat egun lehenago irakurri genuen atal honetan bertan *Fracking Ez mugimenduak* idatzitako gutuna. Frackingaren aurkako sinadura bilketa egiten ari zirela-eta, herritarrok gure iritzia plazaratzeko aukera izateko mahaia jarri nahi zuten antolatzaileek Arraten. Hala ere, ukatu egin zitzaien espazio publikoaren erabilera (Udalak aho batez Eibar Fracking gabeko udalerri izateko erabakia hartua duen arren).

Escribano jaunak emandako ezetza salatzeko pankarta bat idatzi genuen Arraterako Ernaiko kideok, *Escribano, Eibarko gazteok ere Fracking-ari ez!* zioena. Irailaren 7an, ordea, mehatxua jaso genuen. Pankarta kendu ezean, Ertzaintza bidaliko zuela. Berak ez omen du nahi jairik politizatu...

Baina, jarrera hipokrita horren aurrean, jakin dezala zinegotzi jaunak ez herria, ez plaza, ez Arrate ez direla bereak. Eta *Fracking ez mugimenduaren* lana oztopatzen saiatu bada ere, gazteok eta herritar guztiok Frackingaren aurka sinatzeko aukera eduki genuela Maritxu eta mugimenduko beste kideen ahalegin eta lanari esker. Eskerrik asko eta Zorionak batu dituzuen 100.000 sinadurengatik. Eibarko gazteok **fracking-ari ez!**

**Ernai**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** S. Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.050 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Wenzeslao Orbeako jaixak

**Wenzeslao Orbea kalekuak, hainbat enpresaren laguntasunarekin, jaixak ospatuko dittue asteburuan.** Bixarko preparau daben programia hauxe da: 10.30xetan trikitilarixen saiua hasiko da eta auzokuak egindako artisautza lanen erakusketa zabalduko dabe. 11.30xetan umiendako eta nagusixendako jokuak hasiko dira eta, txorizo pintxo-potia egiñ eta gero, 12.30xetan Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" erakustaldixa egingo dau. 14.00xetarako, etxian egindako patata-tortillak epai-mahaikueri presentau biharko jakuez eta jarraixan herri-bazkarixan jango dittue. Arratsaldian, 18.30xetatik aurrera txokolate-jana, umiendako jokuak eta Latinoamerikako dantzen erakustaldixa egingo dira eta, jaixak agurtzeko, 19.45xetan, DJ Kanuttok dantzarako musika saiua eskinduko dau.



*Amañako auzo horretan umiendako jokuak egongo dira bixar goizian eta arratsaldian.* Leire Iturbe

## Defibel-en hitzaldixa urrixan

**Defibel Debabarreneko Fibromialgia Elkarteak hitzaldixa antolatu dau urrixaren 15erako** (eguaztenerako), 18.00etan Portalean. Personalidade eta Giza Harremanetan terapeuta dan Arantzazu Loidik "Sufritzea eragiten didana era eraikitzailean bizi" izenburuari jarraittuta egingo dau berba. Ekitaldira sartzia duan izango da eta gaixan interesa dakan edozeiñek eukiko dau juateko aukeria.






## Fracking-aren kontra

**Fracking-ari ezetz esateko Herri Ekimen Legegillia aurkeztu ahal izateko eskatzen zittuen 30.000 siñadurak** baiño askoz gehixago, ekimenari babesa emoten detsen 103.589 siñadura sartu zittuen Legebiltzarrian hillaren 13an Fracking Ez mugimendukuak. Horregaittik, Fracking Ez Mogimenduko Maritxu Goikoetxea eta Arantza Palacio ordezkarixak, Gipuzkoako plataformen izenian, "zorionak eta eskerrik beruenak" emon nahi detsez "siñadura eta biharrarekin emaitza eder hau lortzen lagundu daben guztieri".

## Agur Kantabriako jaixeri

**Erretratuan ikusten dittuzuenak pozarren agurtu zittuen azken asteburu bixetan** ospatu dittuen Bien Aparecida amabirjiñaren jaixak. Kantabriako Etxekuak Ipuruako bolatokixan amaittu zittuen aurtengo jaixak, igel-toka eta "cuchillo" txapelketak jokatuta eta sardiña-jana eginda.



# ITZIAR ARISTONDO AMUTXASTEGI

*2014ko irailaren 17an hil zen, 72 urterekin*



*"Zure begien distira eta irrifar goxoa izan dira gure gidari"*

FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



# Eskillarak aldatzeko biharrak

**Astelehenian ekin zetsen Untzagako eskillara mekanikuak kanbixatzeko eta estaltzeko biharreri.** Untzagatik Txaltxa Zelaira doian zatixan hasi dira biharrian eta azarorako zati horretan daguazen eskillara bixak kanbixauta eta tapauta, erabiltzeko moduan egotia dago aurreikusitta. Hamendik pare bat astera, barriz, Txaltxa Zelaiko kioskotik gora doiazen beste bi zatixetan biharrian hasteko asmua dakela aurreratu dabe. Biharrak amaittu arte eskillara mekanikuak erabiltzeko aukerarik egongo ez danez, udalak barkamena eskatu nahi detse herrittarreri.



## Lomce Ez kalejira eguenian




**Eibarko LOMCE EZ taldiak datorren asteko eguenerako, urrixaren 2rako kalejiria** antolatu dau, "Lomcerik Ez, Guk Gure Hezkuntza" goiburuari jarraittuta. Asmua urrixaren 11rako hiriburu nagusixetan egingo diran kalejiretarako deialdixa egittia da eta asmo horrekin 18.30xetan anbulatorixotik abiatuko dira, Untzagaraiño, trikitilarixak lagunduta. Antolatzailliak *"guraso, irakasle, ikasle, haur, aitxitxa-amama, osaba-izeba eta lagun guztiak"* kalejiran parte hartzera animau nahi dittue, *"gure umiendako kalidadezko hezkuntza nahi dogula"* adierazteko.

## autuan

### TAILLARRA BERTAN BEHERA

**Jabetza Eskolakuak antolatutako "Nire emozioak eta ni, aurkitzear dugun mundua II" taillarra bertan behera laga bihar izan dabela emon dabe aditzera, izena jende gitxik emon dabenez taldia osatzeko aukerarik ez dalako egon.**



### TREN ZERBITZU BEREZIXA

**Zapatuan 22.00etatik aurrera Bilbon jokatuko dan derbixa dala eta, Eibartik San Mamesera doiazenendako tren zerbitzu berezixa eskinduko dau Euskotrenek: Bilbotik tren bat urtengo da 00.50xetan, partidua amaittu eta gero bueltan etorri nahi dabenendako. Tren berezixak Debara bittarteko ibilbidia beteko dabela iragarri dabe. Eibartik Bilbora jende mordua juatia espero dabe, eguaztenian sarrerak erosteko sortu ziran illarak ikusitta.**






asteko
27.474
datua

biztanle dagoz Eibarren, hillaren 15eko erroldako datuen arabera. Hórretatik 1.905 etorkiñak dira (%6'93). 2014ko urtarrilletik hona 3 etorkin gehixago dagoz, baiña guztira 39 lagun gitxiago dagoz.

# Debabarreneko Aste Ekologikua

**Urriaren 4an (zapatuan) azoka ekologikua hartuko dau Urkizuko parkiak goiz osuan, 10.00etatik 14.30xetara,** Eibarko Udalak, Debemenenek, Biolurrek eta Aza ta Porruak alkartiak antolatutako Debabarreneko Aste Ekologikuaren barruan. Arratsaldeko 18.00etarako, barriz, Urkizun ipiñitta egongo dan karpan bertako basarriko produktu ekologikuen dastaketia egingo da. Antolatzailliak aurreratu dabenez, bestiak beste okelia, gaztaia, jogurta, barazkixak eta ogixa dastatzeko aukeria egongo da eta, gaiñera, produktuen ezaugarrixen eta ekoizpenaren inguruko azalpenak emongo dittue. Dastaketia duan izango da eta nahi dabenak eukiko dau parte hartzeko aukeria, baiña aldez aurretik izena emotia derrigorrezkua izango da. Horretarako Debemen alkartera (943744067) edo Biolurrera (943761447) deittu biharko da.



*Azoka ekologikuaren hirugarren edizíñuak aurten beste bi jardunaldi izango dittu.* SILBIA HERNANDEZ

Hirugarrenez egingo dan aste ekologikuaren barruan, eta azoka egunekuak biribiltzeko, beste jarduera batzuk egingo dira: urriaren 9xan, 16.00etan baserrittarreri zuzendutako bisita egingo da Olaberriko Etxeberri Goikoa basarrira, abeltzaintza ekologikua eta dibersifikaziñorako eredua bertatik bertara ezagutzeko. Eta urriaren 11n konsumitzaillieri zuzendutako Eibarko Sosola basarrira bisitia preparau dabe. Bisitetan parte hartzeko goiko telefonuetara deittuta emon leike izena.



# San Andres eskoliaren mende erdixa

**Aurten beteko dira 50 urte San Andres herri ikastetxia sortu zala eta**, hori dala eta, ikasturte osorako ekitaldixak preparatzen dabiltza eskolako irakasliak, ume eta gurasuekin alkarlanian. Hillero jarduera bereziren bat egittia dake aurreikusitta, hill honetan bertan hasitta: datorren martitzenian, 11.00etan Untzagan, 50. urteurrenaren inguruko programaziñua ezagutzera emongo dabe, ixa ikasle guztien parte-hartzia eukiko daben koreografixarekin lagunduta.



# Zorionak Legarre

**Holan eskertu nahi izan detse jendiari aurreko asteburuan ospatutako jaixeri egindako harrera ona.** Legarreko jai batzordekuak idatziz helarazi deskunari jarraittuta, *"aurtengo jaixak edarrak izan dira. Denak, auzokuak zein bisitan etorrittako guztiak jaixarekin gozatu dogu. Barixakuan, festak hasteko ordu berian, tximista, trumoi eta zaparradak euki genduazen, baiña, halanda be, aurreikusittako egitarauari eutsi jakon. Tortilla txapelketia aterpe txiki batian, estu estu egin zan eta auzoko umiendako afarixa be musikuendako preparauta eguan oholtza gaiñian egin bihar izan genduan. Baiña zapatuan eguraldixa lagun euki genduan eta primerako girua sortu zan auzuan. Umiendako ur jolasak antolatu genduazen eta, bapo bazkaldu eta gero, paillazo, musika, buruhaundi, erromerixa eta kontzertu artian pasa genduazen arratsaldia eta gaba. Horregaittik, eskerrik asko daneri, demaseko giro euskaldun eta jatorra lortu dogulako berriro be"*. Bestalde, zozketan saritutako zenbakixak 859 (1. sarixa), 794 (2. sarixa) eta 1.040 (3. sarixa) dira. Sarixa jasotzeko saltzailliarekin harremanetan ipiñi biharko da.



*Urriaren 4an ospatuko den Sagardo Egunak hainbat berritasun dauzka aurten. Izan ere, aurretik girotzen joateko ekitaldi bi antolatu ditu …eta kitto! Euskara Elkarteak. Batetik, bihar eguerdian Sagardo Egunaren inguruko erakusketa zabalduko da Untzagako jubilatu etxean. Urriaren 3ra arte, azken urteotako argazkiak eta sagardoa egiteko prozesuarekin lotutako azalpenak eta beste bitxikeriak ikusteko aukera egongo da, bihar eta etzi 12.00etatik 14.00etara eta aste barruan, berriz, 19.15etatik 21.15ak bitartean. Eta urriaren 1ean, eguaztenean, 19.00etan sagardo dastaketa egingo da Iruki sagardotegian, Egoitz Zapiain kalitate arduradunarekin (izen-ematea doan, 943200918 telefonora deituta, hilaren 29ra arte, gehien jota 20 lagun onartuko dira).*

EGOITZ ZAPIAIN (kalitate arduraduna):

# "Sagardoaren kalitate gorenarekin batera, dignifikazioa lortu nahi dugu"

***- Nolako saioa eskainiko duzu eguaztenean?***

Hiru edo lau sagardo mota eramateko asmoa daukat. Batzuk suabeak izango dira eta beste batzuek, berriz, gorputz gehiago izango dute. Hortxe, mugan, gogortuta dagoen baten bat probatzeko aukera ere izango da, horrela, probatzen dutenek sagardoak nola eboluzionatu duen ikusteko aukera izan dezaten. Denak gure sagardoak izango dira, Zapiainek duen eskaintzaren barrukoak, leun leunak direnetatik hasi eta muturrekoetaraino bitartekoak.

***- Beste hamabi sagardotegirekin batera, Gorenak proiektuaren barruan zaudete. Zer da proiektua hori?***

Arrisku handikoa da, baina orain dela urte batzuk horretan sartzea erabaki genuen eta horretan gabiltza. Kalitatezko sagardoa eskaintzearekin batera, produktuaren dignifikazioa ere lortu nahi dugu eta horren alde egiten dugu lan. Hala ere, sagardoa produktu naturala izatean, kontserbante barikoa eta bizia, horiek guztiak kontrolatzea ez da lan erraza eta prozesuan zerbaitek eskuetatik ihes egiteko arriskua beti hor dago, kontu handiz ibili behar dugu.

***- Gorenak markaren barruan zaudeten sagardotegiek aparteko garrantzia ematen diozue kalitateari. Nola zaintzen da hori?***

Euskal Herriko Sagardo Gorenak, izenak dioen bezala, hemengoak eta kalitate gorenekoak diren sagardoak identifikatzen dituen marka kolektiboa da eta, bereizgarri hori lortu nahi duten sagardogileek, araudi bat bete eta kontrol neurri zehatzak gainditu behar dituzte sagardoaren lanketa prozesu osoan, horrela goi-mailako sagardoak bermatzeko. Hau da, hainbat irizpide eta lan-modu aplikatu behar dituzte sagardoaren lanketa prozesu osoan, sagastietatik hasi eta sagardoa botilaratu arte: kalitatezko sagarrak, dentsitate kontrola, PH-aren analitika, azidotasun aldakorraren kontrola... Eta, horrez gain, araudiak ez du onartzen kanpotik ekarritako muztiorik. Araudia goitik behera betetzen ote den egiaztatu eta Gorenak zigilua erabiltzeko baimena eman edo ez erabakitzen duen elkartea sagardoaren alorreko izen garrantzitsuenen eskutik 2007an sortu zen Sagardo Mahaia da. Eta zeregin horretarako Fraisoroko laborategiaren lankidetza du, sagardo upel guztien kontrol analitikak han egiten baitituzte horretan beharrean diharduten aditu independienteek. Sagardoak probatu eta aztertu ondoren, puntuazioa eman eta Gorenak zigiluarekin merkaturatzeko egokiak diren ala ez erabakitzen dute. Azken neurketan 100 puntuko eskalan 85 puntu lortu ditugu eta orain gure erronka kupelaren urteko bataz bestekoa zenbaki horretatik ahalik eta gertuen egotea da.

***- Zuk zeuk diozu sagardoa produktu bizia dela. Nola lortzen duzue kalitate gorenari eustea?***

Oso zaila da, baina urtetik urtera beti ikasten da zerbait. Sagar urte ona bada sagardo ona egingo da. Hortik aurrera sagarrak nola nahastu eta beste kontu batzuk sartzen dira tartean. Baina esperientziak zerbaiterako balio du eta lehengo urteko hankasartzeak ez dira hurrengoan errepikatzen. Beraz, ganoraz jardunez gero, urtetik urtera sagardo hobea lortzen joaten gara.

***- Oro har, sagardoa estimatzen dela uste duzu?***

Bai, guk ekoizten dugun sagardoaren 3/4ak Euskal Herrian saldu eta edaten dira eta beste laurdena, berriz, hemendik kanpora, Madril, Bartzelona eta beste toki batzuetan kontsumitzen da. Gaur egun, tabernetan-eta gure sagardoa saltzeko, distribuzio kate bat daukagu eta horrek ere badu bere garrantzia. Izan ere, sagardoaren kalitate gorenari eusteko ezinbestekoa da lote bakoitza ahalik eta azkarren saldu eta banatzea.

# Berbetan

## euskera praktikatzeko taldeak



*Euskera praktikatu nahi eta ezin; inguruan euskaldunik ez duzulako, lotsa ematen dizulako, ongi esango ez duzun beldur zarelako… Batek baino gehiagok ikusiko du bere burua egoera horretan. Premia edo demanda hori ikusirik, …eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela hamalau urte jarri zuen martxan Berbetan mintzapraktika programa, euskeraz berba egin, euskera praktikatu nahi dutenei horretarako aukera emateko. Euskaltegian edo etxean ikasitako euskera praktikan jartzea du helburu egitasmo horrek, pixkanaka hitz-jarioa edo erraztasuna hartzen joateko. Gurasoentzat eta dendarientzat ere programa bereziak eskaintzen ditu …eta kitto!-k, eta aurten ostalaritzara egingo du jauzi.*

Euskera ikasten dihardut baina ez dut norekin praktikatu", "euskaldun zaharra naiz baina berba egiteko erraztasuna galdu dut", "seme-alabekin gehiago egin beharko nuke baina ez naiz gai", "ogia erostera noanean lotsa ematen dit euskeraz egitea", "ahozko azterketa prestatu beharra daukat"… Behin eta berriro entzuten ditugun esaldiak dira. Euskera ikasi nahi duenak, jakina, hor ditu euskaltegiak eta Hizkuntza eskolak, baina askok, euskera, giro lasai, informal eta naturalean berba egitea nahi izaten dute, beste barik erraztasuna lortzeko edo lotsa gainditzeko, eta horixe da, hain zuzen, Berbetan programak eskaintzen duena.

### Astean behin, ordubetez

Taldeak astean behin elkartzen dira, ordubete, normalean tabernaren batean, zerbait hartzen duten bitartean. Lagunartean elkartzea moduan izaten da, berriketa arruntak, ze eguraldi egiten duen, asteburuan zer egin duten, telebistan zer ikusi duten… Solasaldi informalak. Izen-ematea doan da eta taldeek …eta kitto!-ko dinamizatzaile batekin izaten dute harreman zuzena. Urte osoan eman daiteke izena, …eta kitto!-ra deituta (943200918) edo bertara joanda.

### Guraso, dendari eta ostalariak

Orain dela urte batzuk Berbetan egitasmoari azpi-atal espezifikoagoak ateratzea erabaki zuen …eta kitto!-k. Gurasoek euskeraren transmisioan duten funtzio garrantzitsua kontutan izanik, eurentzat sortu zen Gurasoak Berbetan; gauza bera egin zen dendarientzat ere, euren ordutegietara egokitutako taldeak eskainita, eta aurten, berritasun moduan, ostalariengana jo du …eta kitto!-k.



## DENDARIAK BERBETAN

*Euskera praktikatzeko herriko dendariei eskaintzen zaien zerbitzua da. Berbetan programa orokorraren funtzionamendu berbera dauka: taldeak osatu eta astean behin elkartzen dira. Dendarien ordutegia kontutan harturik, eguerdian edo arratsaldean, denda ixterakoan elkartzen dira taldeak.*

*Herritarren aurrean lan egiten dute eta bezeroak eskatzen duen hizkuntzan harrera egiteak, bezeroari dendariekin euskeraz jarduteko aukera emateak, zerbitzuaren kalitateari plusa ematen dio.*

*Datozen asteotan zabalkundea egingo da berriro; herriko dendak bisitatuko dira programaren berri emateko.*



## GURASOAK BERBETAN

*Gurasoak, bizitzako beste arlo askotan bezala, euskerari dagokionean ere, eredu dira seme-alabentzako, euskeraren aldeko jarrera positiboa lantzeko orduan. Esparru estrategikoa osatzen du familiak euskeraren transmisioan eta hori kontutan izanik jarri zuen martxan gurasoentzako egitasmoa …eta kitto!-k orain dela lau urte. Ikastetxeekin elkarlanean antolatzen da programa, bertan jasotzen dute informazioa gurasoek, eta astean behineko taldeak antolatzeaz gainera, talde naturalak ere aprobetxatzen dira, esate baterako parkean sor daitezkeen guraso-taldeak.*

*Horrez gainera, guraso eta seme-alabentzat hainbat ekitaldi ere antolatzen ditu …eta kitto!-k: hilean behin, Barixakuak Jolasian-en barruan, hainbat ekintza egiten dira, hala nola tailerrak, jolasak…*



## OSTALARIAK BERBETAN

*Horixe da aurtengo berritasun nagusia. Tabernetan ere euskeraren erabilera bultzatzea du helburu egitasmo horrek, barraren alde batean zein bestean daudenei euskera praktikatzeko aukera eskainiz. Euskera maila, jakina, ez da berdina izango tabernari guztien artean, baina hori ez da oztopo. Pixkanaka hasiko den prozesua izango da, esate baterako lehenengo hitza edo agurra euskeraz egitea. Ostalarien ordutegia dela-eta astero taldeetan elkartzea zailagoa zela ikusirik, bestelako funtzionamendua izango du programa honek: Euskeraz Primeran! goiburu hartuta jarriko da martxan kanpaina, izena eman duten tabernetan (kanpainan dihardutenn tabernetan bereizgarria ikusgai egongo da). Erantzun ona izan du ekimenak eta orain arte 30 taberna inguruk egin dute bat egitasmoarekin.*





publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



# Udazkenerako ikastaroak Udako Euskal Unibertsitatean

**Udako Euskal Unibertsitateak udazkeneko ikastaro eskaintza aurkeztu zuen eguaztenean.** Urrian hasi eta abendua bitartean hamar ikastaro eskainiko ditu UEUk Eibarren. Mari Karmen Menika UEUko ikastetxe nagusiko arduradunak azaldutakoaren arabera, *"bizialdi osoko ikaskuntzaren alorrean kokatzen dugu UEUren eskaintza, bertan 20-55 urteko pertsonek hartzen baitute parte".* Horrekin batera, on line ikastaroen eskaintza zabaltzeko joerari jarraituko diote, *"UEUren Irakaskuntza Telematikorako plataformaren bidez eta UEUren eredu pedagogikoa jarraituz".*

On line egin daitezkeen ikastaroak hauek dira: "Euskal Herriko ekonomia eta gizartea aztertzeko lanabesak. GIS librea", "Euskal Herriko oroimen historikoa", "GeoGebraPrim: eredu dinamikoak Lehen Hezkuntzan", "Nola dinamizatu komunikazioa Moodlen-n" eta "Nola sortu eta saldu liburu elektronikoak". Eta ikasgelako eskaintza osatzen duten ikastaroak, berriz, beste hauek: "Ahots-teknika ikastaroa II: kantua sentitu, jolastu, gozatu", "Berrikuntza eta motibazioa", "Emozioak eta norberaren gaitasunen lanketa sakontzen", "Familia-harremanak eraikitzen" eta "Oinarrizko estatistika R software librearen bidez".




*Mari Karmen Menikak azaldu zuenez, bizitza osorako irakaskuntza eta on line ikastaroak pisu handia izango dute.* SILBIA

Ikastaroak egiten dituztenentzat diru-laguntzak daudela gogorarazi zuten aurkezpenean: Eibarren erroldatutakoei udalak matrikularen erdia ordainduko die eta bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere laguntzak emango dizkie gipuzkoarrei. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago eta epe hori ikastaro bakoitza hasi baino astebete lehenago amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko edo matrikula egiteko www.ueu.org helbidera jo daiteke edo, bestela, 943 821426 telefono zenbakira deitu.

# Lehen eleberri arrakastatsua

**Tarragonan bizi den Roberto Villarreal kazetari eibartarrak idatzi duen lehen eleberria, "Lignum Crucis", arrakasta handia ari da izaten salmentei begira:** oraingoz lana formato digitalean baino ez du argitaratu, baina pare bat astetan, Amazon plataforma digitalean, abenturazko fikzio historikoa atalean salduenetakoa izatea lortu du. Nobelako ardatza intrigaz betetako kontakizun historikua da, antigoaleko gauzak eta Erdi Aroko erlikiak tartean direla. Euskarri digitalean argitaratutako lana 2015eko udaberrirako paperean argitara emateko asmoa dauka egileak. Villarrealek hogei urtetik gorako



ibilbidea egin du kazetaritzan, hainbat egunkaritan beharrean eta gaur egun Tarragonako El Mundo-ko korrespontsala da.




# "El ultimo tributo" Coliseoan urriaren 3an

**Urriaren 3an "El ultimo tributo", El Ultimo de la Fila talde ezagunari eskainitako ikuskizuna hartuko du Coliseo antzokiak** (22.30etan). Manolo Garcia eta Quimi Portet musikarien abestirik ezagunenekin berriz zuzenean gozatzeko aukera bikaina eskainiko duen emanaldirako sarrerak aldez aurretik eros daitezke, 15 eurotan, Kutxabanken zein Coliseoko leihatilan bertan (astelehenetan, 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara).



# Poesiari eskainitako gaua

**Gaur 22.30etatik aurrera eta Zona Diez elkartearen laguntzarekin, poesiari eskainitako saioa** egingo dute Ibarkurutzeko iturriaren inguruan, hainbat egileren olerkiak irakurrita eta, tarteka, zuzeneko musika sartuta. Saioan parte hartuko duten antzezleak Maite Lorenzo, Begoña Sanchez, Jose Manuel Alvarez, Rafa Herce, Julian Borao, Julio Gonzalez, Andrea Uña, Isabel S. Hidalgo, Manoli Popez, Coro Benito eta Laureano Jimenez Galan dira eta musika arloan, berriz, Nathali Chuchonek eta Javier Triguerok jardungo dute.

# Euskerazko komedia jostagarria gaur





**Gaur 20.30etan "Ondoko hilobiko tipoa" euskerazko antzezlana taularatuko dute Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktore ezagunek Coliseoan (8 euro).** Txalo konpainiaren eskutik datorren "Ondoko hilobiko tipoa" Begoña Bilbaok zuzendutako komedia jostagarria da. Protagonistetako bat Aiora da, "liraina, goxoa eta alarguna" eta bestea "berekoia, burugogorra eta ezkongabea" den Pablo. Bi mundu ordezkatzen dituzten gazte biek hilerrian bat egingo dute eta antzezlanak hortik aurrera gertatutakoak kontatuko ditu, irauten duen 80 minutuetan. Pertsonaia bien azalean sartuko diren aktoreak, Iker Galartza eta Aitziber Garmendia aski ezagunak dira: Galartza "Gau erdian", "Ate joka" eta "Bota patxa" antzezlanetan, "Vaya semanita" eta "Irrikitown" telebista saioetan eta "Poxpolo ta konpainia" pailazo taldean aritutakoa da, besteak beste. Eta Garmendiak, bestetik, "Emakumeak izarapean" eta "Baginaren bakarrizketak" antzezlanetan, "Mi querido Klikowsky" eta "Martin" telesailetan eta "Sorginen laratza" telebista saioan parte hartzen ikusi dugu.

## laburrak

### CIELITO

**Kontzertu sasoiari ekingo dio Cielito Musika Bandak domekan, 12.30etan Coliseoan eskainiko duen emanaldian. Iñaki Orbegozok zuzenduta, honako egitarauari jarraituko diote: "Onda" (pasodoblea, J.M. Arnau), "Across the stars" (J. Williams), "West Side story" (aukeraketa, L. Bernstein), "Flor de mayo" (jota, Ildefonso Irusta) eta "Betikoskorri" (aukeraketa, I. Urkizu). Aurretik, 11.15etan kalejira egingo dute.**




### TERTULIA

**Gaur 18.00etatik aurrera maitasunari buruzko tertulia egingo da Andretxean (gazteleraz). Amodio harremanak nola bizi ditugun, zine eta publizitatetik ailegatzen zaizkigun mezuak eta beste batzuk aztertuko direla aurreratu dute.**




# Bertso derbia Akaran

**Zapatuan Athletic eta Eibarren arteko derbia jokatuko da San Mamesen eta, horren aitzakiarekin, Hankamotxak** bertso eskolakoek bezperarako bertso derbia prestatu dute Akara tabernan. Saioa gaur 23.30etan hasiko da eta bina bertsolari izango dira talde bakoitza ordezkatzen: Eibarren aldetik Aimar Goenaga eta Mikel Arrillaga eta Athleticen aldetik, berriz, Inazio Vidal eta Imanol Uria. Gai-jartzailea Ion Martinez izango da eta, iragarri duenez, *"sorpresaren bat edo beste egon daiteke"*. *Bertso eskolakoek azaldu dutenez, "hau izango da Eibarren antolatuko den lehen bertso derbia. Izan ere, beste batzuetan Athletic eta Errealaren arteko bertso derbiak antolatu dira, baina Eibar lehen mailara igo dela aprobetxatuz hau izango da herriko taldea tartean dagoen lehena".*

# Bi kontzertu Beleko tabernan



**Gaur 23.00etan Mikel Uraken kantautorearen kontzertua hartuko du Beleko tabernak.** Musikari bilbotarrak urteak daramatza bakarka abesten, Neil Young eta Mikel Laboa modukoen eraginpean. Orain arte Karlos Osinagarekin grabatutako "Folk songs for tormented souls" CD-a eta "Omenaldi Xumeak" izenburukoak eman ditu argitara eta une honetan bere hurrengo lanerako, Javier Letamendiak ekoiztuko duen "Neguaren ostean" izenburuko lanarentzat abesti berriak idazten dihardu.

Eta bihar ere zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera izango da Belekon, 23.00etatik aurrera David Colomo eta Nieves Molina "Recital de cante flamenco, copla y fusion" izenburukoa eskaintzen egongo dira eta.

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

BALATZ C.B.
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37
Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net
Faxa. 943 20 04 94

trinmer
Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

## AROTZAK

SUA
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac.
ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ibarra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak
Juan Gisasola, 4
943 257 869
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. Inspeccion Tecnica de Edificios
Eraikinen Ikuskapen Teknikoa E.I.T.
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
**irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
**Jardines Iturgintza**
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

**MUGICA**
ITURGINTZA
Aire egokitua, iturgintza,
gas instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
**Hansgrohe** kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
☎ eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

**AIXA** DECORACIONES
José Luis Iriondo
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**
- Nexa Autocolor
- Pintura industriala
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR PINTURAS**
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

# TEEN AJEAK

**Urriaren 18tik aurrera Lehen Hezkuntzako ikasleei dantza garaikidea erakutsiko die Marina Kruzelaegik Portalean, Udalak eta Astixak antolatutako Zapatuetako Tailerren barruan. Ipurua dantza garaikide taldeko kideak dantza eskolen bitartez gazteak euskeraz egitera animatzeko asmo garbia duela kontatu digu.**

***- Nola suertatu zitzaizun Zapatuetako Tailerretan dantza klaseak emateko aukera?***

Bestela ere dantza eta "Zumba" klaseak ematen ditut Orbea kiroldegian eta Juanito gimnasioan. Zapatuetako Tailerretan dantza klaseak emateko proposamena zuzenean udaleko Gazte Sailetik ailegatu zitzaidan. Dantza klaseak emango ditut, baina beti ere oinarrian euskera egongo da. Hau da, dantza gazteek euskera erabiltzeko bide modukoa izatea nahiko nuke, horretan ahaleginduko naiz behintzat. Nik azarora arte jardungo dut, baina antolatzaileek diotenez arrakasta handiko ikastaroak dira hauek eta, horregatik, Gabonetatik aurrera berriz eskaintzeko asmoa daukate. Horietan Ipurua dantza taldeko beste lagun bat, Jone Barandika izango da irakaslea.

***- Nolakoak izango dira zure klaseak?***

Ba oraindik ez dut guztiz zehaztu zer erakutsiko dudan. Dantza garaikidea egingo dugu, hori argi dago, baina behin taldearekin batzean eta mugitzen hasten garenean ikasle bakoitzak zer erakusten didan aren arabera klaseak modu batean edo bestean antolatzen joango gara.

***- Noiz hasi zinen dantzan?***

Txiki txikitatik egiten dut dantzan, betidanik gustatu zait. Urteak daramatzat Ipurua dantza garaikide taldean eta hor jarraitzen dugu, dantzan egiteko ahal dugun guztietan batzen, berdin dio berandu izan, zapatu arratsaldea izan… benetan oso gustora ibiltzen gara eta!

***- Zer da dantzatik gehien gustatzen zaizuna?***

Dantzan egiten dudanean beste guztiarekin ahaztu egiten naizela, erabat deskonektatu egiten dudala. Berdin da pozik edo triste egon, niretzat terapia modukoa da beti.

***- Denborapasatik haratago, dantzan aurrera egitea gustatuko litzaizuke?***

Magisteritza ikasten nabil, baina horrekin batera dantza klaseak ematen ditut eta, beraz, ikasketak eta beharra, biak batera egiten ditut. Egia esateko, lanean ikasten baino ordu gehiago ematen ditut eta, gustora nagoenez, badira urte batzuk ikasketak erritmo lasaiagoan egiten hasi nintzela.



Marina Kruzelaegi
(DANTZA IRAKASLEA)

## "Dantza euskera erabiltzeko bidea izatea nahiko nuke"




TERESA HERNANDEZ NAVARRO

*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"*

ZURE LANKIDE ETA LANKIDE-OHIAK



# Deporreko mendizaleek amaitu dute Euskal Herriko zeharkaldia



**Euskal Herriko sapaian, Hiru Erregeen Mahaian, amaitu zuten Klub Deportiboko mendizaleek 2012ko maiatzaren 5ean Balmasedan hasitako ibilbidea.** Zeharkaldia 19 etapetan egin dute: sei 2012an, beste sei iaz eta azken zazpiak aurten. Lehenengo urteko etapetan Los Tornos-eko mendatetik Gatzagaraino joan ziren, Balmaseda, Sodupe, Areta, Orozko eta Ubideatik pasata. 2013an Gatzagan hasi eta Belateko menderaino joan ziren, etapak Arantzazun, Otzaurten, Lizarrustin, Lekunberrin eta Beintza-Labaienen amaituta. Aurtengo martxak Belatetik Hiru Erregeen Mahaira eraman ditu mendizaleak; hor Eugi, Aurtiz, Hiruberri, Otsagi, Isaba eta Zuriza izan dira etapa amaierak.

*"Jende gutxien joan ginen irteeran 41 lagun izan ginen, baina izan dira 55 laguneko irteerak ere"*, diote antolatzaileek. "Zeharkaldi oso aberasgarria izan da, batez ere irteera orokorretan ezagutzen ez diren tokitik pasa garelako". Horrez gain, Zalama, Kolitza, Ganekogorta, Gorbea, Anboto, Aizkorri, Saioa, Adi, Ezkaurre eta beste hainbat gain lortu dituzte parte hartzaileek, asko kanpotik etorritakoak: *"Donostia, Bilbo, Aramaio, Tolosa, Oñati, Deba, Elgoibar, Mallabia eta Ermuko jendea izan da gurekin"*, esan digu Periko Iriondo irteeretako antolatzaileetakoak. Bestalde, jende heldu gehiago izan da eskursio horietan gazteak baino, eta baita emakumeak baino gizonezko gehiago ere. Dena dela, parte hartu dutenek gogotik disfrutatu dute.



*Arruabarrena, goleatzaile Villarrealen aurka.*

# Eibar FT San Mamesen bihar

**Denboraldi honetan partidu bereziak jokatuko ditu Eibar FT-k astero, 1. mailan izanda:** bihar San Mamesen jokatu beharrekoa ez da gutxiago izango. Hara egindako azken bisitan, Katedral zaharrean, Garitanoren mutilek sasoi batean Kopako erregea izandakoa kanporatu zuten eta orain ere aurre egiteko asmoz doaz. Partidua gaueko 22.00etan jokatuko da eta arratsaldetik aurrera bi taldeetako zaleen topaketa egingo da Bilboko Somera kalean. Alde Zaharreko kale horretan jokoak eta zozketak, txarangak eta herri-kirolak izango dira 13.00etatik aurrera. Bestalde, Eibarrek eskatutakoaren sarreren kopuru erdia bidali ditu Athletic-ek eta salgai daude Premier Bidaietan. Azken honek autobusak ipini ditu biharko: 11.30etan eta 19.00etan irtengo dira.

# Eibarko Kirol Patronatuaren ikastaro denboraldi berria

**Ipurua, Orbea eta Unbeko instalazioek eskaintza handitu dute 2014-15 ikasturte berrirako eta programa berriak sartu:** erlaxazioa, zumba, dantza eta uretako jarduera berriak tartean. Helduendako jardueren artean, hauek dira berririk esanguratsuenak: erlaxazio-jarduerak ordu-eskaintza zabalagoa izatea, zumba jarduera martxan ipintzea (Ipuruan eta Orbean, bietan), eta "osasun oneko sorbalda" jardueraren eskaintzea. Horrez gain, Orbean beste jarduera berri bat eskainiko da: bossu, kaloriak erretzekoa. Kiroldegi bietan, gainera, ikastaroei eta ohiko jarduerei eutsiko zaie: matt Pilates, yoga integratua, fitness, just pump, spinning, aerobic, 123 forman mantentzea, Pilates lasterketa, fitness senior, intentsitate baxua, kirol egokitua, karatea, dantza, G.A.P., integral fit-a, fit balance edo gimmasia hipopresiboa (azken horrek ordu gehiago izango ditu).

Umeendako dauden berritasun nagusiak hauek dira: urteko ordutegien programazioan, barixaku eta zapatuetan, "erritmo-dantza" eta "dantza-txiki" klaseak (lehenengoa Ipuruan eta bigarrena Orbean). Ipuruan, lehen moduan, karate ikastaroak izango dira; Orbean Pilates ikastaroak eskainiko dira; eta, Unben tenis ikastaroak. Kirol Patronatuak gauza berriak sartu ditu baita uretako jardueren programazioan: igeriketan, "master" igeriketa-ikastaroa Ipuruan eta igeriketa pertsonalizatua Orbean. Horrez gain, "akua-sorbalda" ere eskainiko da (lehen uretako errehabilitazioa zena).

Aurreko urteetan bezala, umeendako maila guztietako igeriketa-ikastaroek interes handia piztu dute eibartarren artean: horren adibide da 500 inguruk eman dutela izena.

Eibarko Kirol Patronatuak eskaintzen dituen jarduerei buruzko informazio gehiago jasotzeko, interesatuek 943-203240 telefonora deitu dezakete edo www.eibarkirola.com webean sartu eta hortik kontaktatu.

## Debabarreneko VI. BTT Martxan parte hartzeko izena eman daiteke

**Kirolprobak.com webgunean izena emateko epe hori proba baino bi egun lehenago itxiko da**, hau da, urriaren 17an. Aurten seigarren edizioa beteko du urriaren 19an, domekan, egingo den herri-martxak eta iazko marka (402 kirolari) gainditzeko asmoa du. Goizeko 09.00-etan hasiko den probak Elgoibarko Mintxeta Kirolgunean izango du irteera eta helmuga, Debabarreneko BTT Zentroa bertan dago. Bizikleta zaleek bi ibilbideren artean egin ahal izango dute aukera: bata laburra, 25 kilometrokoa, eta bestea luzea, 45 kilometrokoa -biak ere, Karakate inguruan-. Federatuek 12€ ordaindu beharko dute eta federatuta ez daudenek 15€. Proba amaitutakoan, opariak zozketatuko dira partaide guztien artean: asteburuko egonaldiak, bazkariak edo afariak, kirol materiala, produktu gastronomikoak... Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Debegesa Garapen Agentziak elkarrekin antolatutako probak Debemen eta eskualdeko BTT kluben laguntza dute. Informazio gehiago: www.debabarrenaturismo.com



*Mintxeta izango du ardatz BTT Martxak.*



## Pello Osoro bigarrena Euskadiko Triatloi egutegiko azken proban

**Delteco Eibar Triatloi taldeko ordezkaria garaipenetik oso hurbil** geratu zen berriro, oraingoan Mutrikuko I. Sprint Triatloian. Mikel Mujika bergararrak 14 segundo atera zizkion helmugan Euskal Herriko triatloi zirkuitorako azken proba puntuagarrian. Emakumezkoetan Estefania Gomez kantabriarra izan zen onena. Gure herriko beste hiruk hartu zuten parte Mutrikuko lehen edizio horretan: Edu Oyarzun, gainera, onena izan zen beteranoen V2 mailan (21.a sailkapen orokorrean) eta Adur Juaristik 36. postuan amaitu zuen eta Roberto Gartziak 40.ean.

## Mendiko orientazio ikastaroak

**Urriaren lehen bi asteburuetan mendiko orientazio ikastaroak eskainiko ditu Gipuzkoako Mendi Federazioak.** Urriaren 4an eta 5ean iparorratza erabiliz emango da eta urriaren 11n eta 12an GPS-aren bitartez. Iparorratzarekin zein GPS-arekin, mapak, teknikak, ibilbideen antolaketa eta "galduta" egoerari aurre egitea landuko dira. Informazio gehiago: http://www.gmf-fgm.org/main.php



## Eibar Triatloi Taldearen zilarrezko ezteiak ospatzen

**Datorren astean hasiko da Eibar Triatloi Taldearen 25. urteurrena ospatzeko egitaraua gauzatzen.** Urriaren 2an Josu Iztuetak "Abenturatik triatlora" hitzaldia eskainiko du Klub Deportiboan, Dina Bilbao zenaren inguruan eta, handik astebetera, hilaren 9an, Peru Alfarok "Ironmanari" buruz jardungo du: ekitaldi biak 19.30etan hasiko dira. Bestalde, urriaren 6tik 11ra arte material eta argazkien erakusketa izango da ikusgai T. Etxebarriako El Corte Inglesean.

Ospakizunetako egun handia, dena dela, hilaren 11n izango da. 11.30etan umeen duatloia jokatuko da, benjamin, alebin eta infantil mailakoentzat (izen-ematea ikastetxeetan); 12.30etan herri-duatloia jokatuko da 15 urtetik gorakoentzat (izen-ematea egun berean Deportibo parean); 13-00ean txirrindularien lasterketa kriteriuma jokatuko da; eta, 14.00etan talde-argazkia atera ondoren, handik ordu erdira bazkaria egingo dute Armeria Eskolan.


*Josu Iztuetak hitzaldia emango du urriaren 2an.*

## Aitor Hernandez indartsu aurredenboraldian

**Ermuko txirrindularia garaile izan zen asteburuan Arazurin (Nafarroa) jokatutako BTT Caja Rural Kopako** azken proban. Specialized-Garmar taldekoa hasieratik jo zuen aurrera eta erraz nagusitu zitzaien Cia (MSC) eta Latasari (Saltoki). Aurreko asteburuan Zegaman BTT XCO Euskadiko Openaren azken mangan lortutako garaipenarekin -hor Hernandezek ia lau minutu atera zizkion Latasari eta bostetik gora Armendariz eta Estebani-, aurredenboraldi emankorrean bost garaipen lortu ditu Ermukoak. Oviedon hasiko den ziklo-kros denboraldirako aste bi falta direnean Aitor Hernandezek oso sasoi onean dagoela erakutsi du.



## Concepto Egile aste erabakigarriaren aurrean

**Areto-foballeko Bigarren B mailako bigarren jardunaldia jokatuta, Debabarreneko lehen taldea** sailkapeneko goi-goian dago, jokatutako neurketa biak irabazita. Aurreko astean Agoncillori 2-4 irabazi eta gero, oraingoan Concepto Egile erraz nagusitu zitzaion Aurrera Vitoriari (8-3). Finok, Gabik eta Alexek bina gol sartu zituzten eta Trebiñok eta Adrianek lortu zituzten beste biak. Aste hau, bestalde, oso esanguratsua izango da, San Juanen kantxan Kopako kanporaketan 1-2 irabazi ondoren bihar partidu zaila izango dutelako elgoibartarrek Zaragozan, hango Colo-Coloren aurka.

Debabarrena areto-foballaren klubak 300 abonatu lortzeko kanpaina hasi du. Horretarako, interesatuek 50 euro ingresatu beharko dute hauetako kontu batean: Euskadiko Kutxa (3035 0210 58 2100009871) edo Kutxabank (2095 5079 82 1064211336).



## Sporting Novak eta Txoko gogor foball-zaletuan

**Sporting Novak-ek zazpi gol sartu ditu eta bat ere ez du jaso eta Txokok,** bestalde, EzDok Deikari eta Aretori irabazi die ligako lehen bi jardunaldietan. Partidurik galdu gabe daude ere Alkideba, Azkena Kalton, Esmorga eta Fontaneria Mujika. Caserio Slow XOK eta Areto punturik gabe daude eta Koskor eta Durango aurreko denboraldietako "oilarretako" batzuk jakin badakite zer den galtzea. Aipatutako lehenengo bi sailkatuek bihar izango dute erronka: Txokok Esmorga izango du aurkari 09.00etan eta Sportig Novak-ek Iruki 12.00etatik aurrera.




## Asier Cuevas herri-lasterketa urriaren 25ean

**Iaz sortutako herri-lasterketaren bigarren edizioa** jokatuko da urriaren 25ean, 18.00-etatik aurrera. 7'5 kilometroko proban parte hartzeko, www.sailkapenak.com helbidean eman daiteke izena edo, bestela, Deporreko bulegoetan hilaren 1, 8, 15 eta 22an (19.00-20.30). Kartelean Roberto Agirregomezkorta atleta handia izan zena gogoratzen dute.

## Hierros Anetxe burua jaso ezinik

**Denboraldi hasiera kaskarra izan du Eibar Rugbyko seniorren taldeak:** etxean Burgosekin galdu eta gero, Oviedon porrot handia jaso zuen bigarren jardunaldian (40-12). Lehen zatia 19-12 amaitu ondoren, eibartarrek bigarren zati negargarria egin zuten, asturiarrei sei entsegu lortzeko aukera emanez. Pello Urkidi getxotarrak azkar asmatu beharko du egoerari zelan buelta eman, astebururan Unben jasoko duen Valladolideko El Salvador historikoaren filiala aurkari erraza izango ez den arren.

9.784 ORDUZ EUSKERAZ Egunerbetan, 832 BAZKIDE

...eta kitto!.ko bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu 11, solairuartea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota
- [ ] 16 urtetik behera **5 euro**
- [ ] Lanean dihardut **45 euro**
- [ ] Langabea, ikaslea, jubilatua, etxekoandrea **15 euro**
- [ ] Borondatez, diru gehiago eman nahi dut ........ **euro**

Izen-abizenak: ____________________
Helbidea: ____________ Herria: ____________
Telefonoa: ____________ e-maila: ____________
Lanbidea: ____________ Jaiotze data: ____________
Kontu zenbakia (20 digito): ____________________

# Euskeraz bizi eta dantzan egiteko irrikitan

*Zapatuan goizeko 11.00etarako martxan eguan EUSKARAZ BIZI NAHI DUT AZOKIA, herrixan euskeraz daguan eskintzaren barri emoteko prest: Udal Euskaltegixa, AEK euskaltegixa, …eta kitto! Euskara Elkartea, Hankamotxak Bertso Eskolia, Eibarko Udala, Eibarko Euskal Herrian Euskaraz, Kontseillua, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Badihardugu / Ahotsak.com, Astixa, Zeramika Eskolia, Dibujo Eskolia, Musika Eskolia, Armagintza Museua, Kezka dantza taldia, Klub Deportibua, Arrate Kultur Elkartea, Biraka dantza, Eibarko Kantuzaleak eta Juan San Martin Udal Liburutegixa egon ziran parte hartzen eta eguardittik aurrera batu zan jende gehixen, aurtengo programaziñoko barrittasun nagusiñak erakarritta. Birrittan lortu zan Untzaga plazia Esne Beltzaren erritmora dantzan ipintzia, Birakakuak preparautako koreografixari jarraittuta egindako flashmob-ian. Eta gabian edarto pasau eben Txaltxa Zelaixan Hankamotxak bertso eskolakuak antolatutako bertso saio musikatura juandakuak. Euskeraz bizitzeko nahixa aldarrikatzeko egun biribilla.*



Umiak kartela margotu eben.



Biraka Dantzakuak flashmob-a gidatu eben gradetatik.

argazkiak
LEIRE ITURBE




EHE-ek zozketia egiñ eban sarixa banatzeko.




Eibarko Kantuzaleak biharrian.










Goiz osuan egon zan martxan azokia.



Dantzan egitteko orduan gaztienak animau ziran batez be.

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, NOA, gure etxeko printzesa, gaur urtia betetzen dozu-eta. Etxekuen eta, batez be, zure lehengusu Danel eta Aner-en partez.



Zorionak, ANER, hillaren 30ian hiru urte egingo dozuz-eta. Aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL Lapeyra, zure laugarren urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LAIA, eguaztenian 7 urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Izar eta Txanpiren partez.



Zorionak, ARRATE maittia, lau urte bete dozuz-eta. Muxu haundi bat zure famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, aitta eta amaren partez.



Zorionak, UNAX Garcia Beroiz, hillaren 19xan zazpi urte egin zenduazen-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, UNAI, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Besarkada bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT, domekan zazpi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, bikote! IRATI, abuztuaren 10ian bederatzi urte egin zenduazelako, eta EKHI, bixar sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi-haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MALEN, astelehenian 11 urte beteko dozuzelako, eta LAIA, urriaren 11n urtetxua egingo dozu-eta. Milla muxu famelixaren partez.

## hildakoak

- **Angeles Elgezabal Unzueta.** 80 urte. 2014-VIII-14.
- **Antonio Gonzalez Rodriguez.** 90 urte. 2014-IX-4.
- **Jose Manuel Munduate Lasa.** 70 urte. 2014-IX-14.
- **Teresa Hernandez Navarro.** 60 urte. 2014-IX-17.
- **Piedad Gabilondo Nuño.** 85 urte. 2014-IX-20.
- **Libe Saenz de Viteri Maiora.** 80 urte. 2014-IX-21.
- **Jose Luis Iso Berastegi.** 76 urte. 2014-IX-22.

## jaiotakoak

- **Ana Aminata Arizmendiarrieta Deme.** 2014-IX-11.
- **Oier Guinaldo Larrañaga.** 2014-IX-14.
- **Nicolas Martinena Pedraza.** 2014-IX-15.
- **Luna Hernandez Asperilla.** 2014-IX-17.

## zineaColiseoan

**(ANTZOKIAN)**
**27an: 19.45, 22.30**
**28an: 20.00**
**29an: 20.30**

### "El corredor del laberinto"

*Zuzendaria:* **Wes Ball**




**(ANTZOKIAN)**
**27an: 17.00**
**28an: 17.00**

### "Campanilla. Hadas y piratas"

*Zuzendaria:* **Peggy Holmes**



## BARIXAKUA 26

### INDIANOKUA
**16.30.** Play / Wii. Indianokua gaztelekuan.

### TERTULIA
**18.00.** Tertulia lila: *"El amor"* (gazteleraz). Andretxean.

### AURKEZPENA
**18.00.** Emakumeen Hilerokoaren inguruko lantaldea osatzen hasteko aurkezpen bilera. Arrate Kultur Elkartean.

### ANTZERKIA
**20.30.** *"Ondoko hilobiko tipoa"* (Txalo). Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

### POESIA EMANALDIA
**22.00.** Poesia eta musika emanaldia. Ibarkurutzen.

### KONTZERTUA
**23.00.** Mikel Uraken kantautorearen kontzertua. Beleko tabernan.

### BERTSO DERBIA
**23.30.** Inazio Vidal+ Imanol Uria (Athletic) eta Mikel Arrillaga+Aimar Goenaga (Eibar) bertsolariak. Gai-jartzailea: Ion Martinez. Akara

## ZAPATUA 27

### W. ORBEAKO JAIAK
**11.30.** Umeendako eta nagusiendako jokoak. Txorizo pintxo-potea.
**12.30.** Bihurriren erakustaldia.
**14.00.** Patata-tortilen lehiaketa. Gero, herri-bazkaria.
**18.30.** Txokolate-jana, umeendako jokoak eta dantza latindarren erakustaldia.
**19.45.** DJ Kanutto-ren musika saioa.

### INDIANOKUA
**17.00.** Paintball. Indianokua gaztelekuan.

### UMEENDAKO ZINEA
**18.00.** *"Rio 2"*. El Corte Inglesean.

### KONTZERTUA
**23.00.** *"Recital de cante flamenco, copla y fusion"*, David Colomo eta Nieves Molinaren eskutik. Beleko tabernan.

### KONTZERTUA
**23.30.** Wanna Funk. Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 28

### KONTZERTUA
**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

### INIDIANOKUA
**17.00.** Kanpo-jolasak. Indianokua gaztelekuan.

### AGINAGAKO JAIAK
**18.00.** San Miguel bezperako kanpai iraulketa. Aginagan.

## ASTELEHENA 29

### AGINAGAKO JAIAK
**11.00.** Meza nagusia, Usartza txistulari bandarekin.
**12.30.** Luntxa eta umeendako jolasak.
**14.00.** Lagunarteko bazkaria, Usartza Txistulari Bandarekin. Aginagan.

## MARTITZENA 30

### AURKEZPEN DANTZA
**11.00.** San Andres ikastetxearen 50. urteurrenaren aurkezpen dantza. Untzagan.

## EGUAZTENA 1

### SAGARDO DASTAKETA
**19.00.** Sagardo Egunaren inguruan antolatutako sagardo dastaketa, Egoitz Zapiainen eskutik. Iruki sagardotegian.

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19.00.** Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK
**19.30.** “Estatu Batuetako parke nazionalak”, Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

## EGUENA 2

### KALERATZEAK STOP
**19.00.** Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

### HITZALDIA
**19.30.** “Abenturatik triatloira”, Dina Bilbaori buruz, Josu Iztuetaren eskutik. Eibar Triatloi Taldeak antolatuta. Klub Deportiboan.

## diru-laguntzak

✔ **Diru-laguntzak ikasleei / Umeak Eskolara**
**Zenbatekoa:** 60'10 euro. **Eskaerak aurkeztea:** Eibar Merkataritza Gune Irekian (Untzaga Plaza, 7- 3. behea), urriaren 31ra arte. **Informazio gehiago:** Pegoran.

## Ikastaroak

✔ **UEUko ikastaroak**
**Eskaerak eta informazioa:** www.eibar.net helbidean eta Pegoran.

## HOROSKOPOA

**ARIES**
Aurreko asteburuan zeozer laga zenuen zintzilik lagun batekin. Bihar aproposa izan daiteke horri buelta bat emateko.

**TAURUS**
Zure bihotzean baten bat tok-tok egiten dihardu. Ez izan beldurrik eta zabaldu ateak: izango duzu damutzeko beta.

**GEMINI**
Lasai, pozik eta energiaz beteta zaude. Baikor zabiltza: badirudi ingurukoak kutsatu dituzula. Segi horrela!

**CANCER**
Ahula zarela ematen badu ere, burua hotz izateko gaitasun handia duzu eta horrek asko lagunduko dizu orain.

**LEO**
Batzuetan norberari tokatzen zaio “fitxa” mugitzea. Nahi duzuna lortzeko, pausotxoren bat eman beharko zenuke.

**VIRGO**
Irribarre xinple horiek... Maiteminduta! Nork esango zizun Cupidoren geziak zure bihotzean hartuko zuela kabia?

**LIBRA**
Ikasturte hasiera gogorra, ezta? Lasai, apurka egoera berrira ohitu eta hobeto sentituko zara. Itxaropenik ez galdu!

**SCORPIUS**
Aspaldi ezagutu zenuen persona bat agertuko da berriz ere zure bizitzan. Naturaltasunez jardun eta ekin jokoari!

**SAGITTARIUS**
Aurreko asteburuko ajea eguaztenean kendu eta gero, gaur emaiozu atseden gorputzari eta baztertu parranda.

**CAPRICORNIUS**
Osasun aldetik ahul samar zabiltza eta garbiago jatea komeni zaizu. Bizimodu lasaiagoa eraman eta lo gehiago egin.

**AQUARIUS**
Lagun lasaia eta zentzuduna zara, baina azken aldian ez dago zure ondoan egoterik. Dena da kexa eta purrustada!

**PISCIS**
Larregi eskatzen diozu zure buruari eta horrek ez dizu lagatzen zoriontsua izaten. Errealistagoa izan beharko!

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Irailaren 26ra arte**
***"IRAKURTZEA, PLAZERRA ETA ESKUBIDEA".***
*Juan San Martin Liburutegian*

✔ **Irailaren 28ra arte**
***ARRATE KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN*** artelanen erakusketa. *Topalekuan*

✔ **Irailaren 30era arte**
***JOSU GARAIREN*** argazki erakusketa.
*Klub Deportiboan*
***PEDRO ARRIOLARENN*** "Uzbekistan" argazki erakusketa.
*Portalea tabernan.*
***ENRIQUE LORENZOREN*** argazki erakusketa.
*El Ambigu tabernan*

✔ **Urriaren 3ra arte**
***SAGARDO EGUNAREN*** inguruko erakusketa.
*Untzagako Jubilatu Etxean*

✔ **Urriaren 12ra arte**
***CERAMIC SUITE*** erakusketa. *Portalean*

## farmaziak

✔ **barixakua 26**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **zapatua 27**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **domeka 28**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **astelehena 29**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **martitzena 30**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✔ **eguaztena 1**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **eguena 2**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **barixakua 3**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

GAUEZ BETI
**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## lehiaketak

✔ **XV. Asier Errasti Film Laburren Jaialdia**
**Lanak aurkeztea:** Portalean, ***urriaren 3ra arte.*** **Informazioa:** www.planocorto.es / www.eibar.net; cultura@eibar.net; 943708435 telefonoan.

✔ **XXVII. I. Ojanguren Argazki Lehiaketa**
**Lanak aurkeztea:** Portalean, ***urriaren 3ra arte.*** **Informazioa:** Portalean.

✔ **Sanandresak Eibarren Kartel Lehiaketa**
**Lanak aurkeztea eta informazioa:** ***Urriaren 14ra arte***, Pegoran.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | | 6 | 7 | | 5 | | 8 | |
| | | | | | 1 | | | 7 |
| | | | 8 | | | | 4 | |
| | | 5 | | | | 6 | | 3 |
| | 6 | 3 | | | | 1 | 9 | |
| 8 | | 1 | | | | 4 | | |
| | 8 | | | | 9 | | | |
| 1 | | | 4 | | | | | |
| | 9 | | 1 | | 7 | 5 | | 4 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 8 | 1 | 2 | 6 | 3 | 5 | 4 |
| 2 | 6 | 4 | 9 | 5 | 3 | 1 | 8 | 7 |
| 5 | 3 | 1 | 8 | 7 | 4 | 9 | 2 | 6 |
| 3 | 8 | 5 | 4 | 1 | 2 | 6 | 7 | 9 |
| 6 | 4 | 7 | 3 | 9 | 8 | 2 | 1 | 5 |
| 9 | 1 | 2 | 5 | 6 | 7 | 8 | 4 | 3 |
| 4 | 5 | 3 | 6 | 8 | 1 | 7 | 9 | 2 |
| 1 | 7 | 6 | 2 | 4 | 9 | 5 | 3 | 8 |
| 8 | 2 | 9 | 7 | 3 | 5 | 4 | 6 | 1 |

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora.............................*010*
Udaletxea..........*943 70 84 00*
Portalea.............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa ..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ...........*943 03 34 00*
Iberdrola ...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria...*943 22 22 22*
Mendaro osp.......*943 03 28 00*
Anbulategia .......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza ..........*943 53 17 00*
Eusko Tren ........*902 54 32 10*
Pesa..................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# etakitto.iragarkilaburrak.com

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ipuruan. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Lagun batendako edo bikote batendako egokia. Egoera onean. Tel. 696-045050.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2 logela eta egongelarekin. Tel. 602-490595.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-450 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 632-569245. Waris.
– Gizonezkoak pisua hartuko luke alokairuan. Konpartitzeko. Tel. 660-833346. Fernando.
– Logelak alokagai T. Etxebarria kalean. Tel. 631-325616. Andrea.
– Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-192408.
– Lagun bakarrak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 656-758793.
– Pisua alokatzen da Eibarko Arane kaleko Jatako eraikinean. Logela bakarrekoa. Altzairu berriak eta diseinuzkoak. 500 euro. Tel. 645-735442.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.
– 70 m²ko lokala alokagai Ipurua inguruan. Sarbidea plazatik. Barra, zerbitzua eta abarrekin. Gazteentzako baimenarekin. Tel. 679-425467.
– 25 m²ko lokala hartuko nuke errentan. Merke, ahal bada. Tel. 618-854121.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 608-523426.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-525042.
– Mutila eskaintzen da umeak zaintzeko eguerditik aurrera. Tel. 664-464679.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 637-406227.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 681-376013.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 655-677035.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 943-425443.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-259560.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-609678. Piedad.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 631-282203.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 606-354982.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-252150.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 648-054046.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Berehala hasteko moduan. Erreferentziak. Tel. 674-342769.
– Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-417995.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-641988.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 647-885099.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko: Geriatria ezagutza, Magisteritza... Berehala hasteko prest. Tel. 679-335510.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Krisiaren aurkako prezioan. Tel. 655-231059.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 674-713262.
– Gizona eskaintzen da margolari moduan, elektrizista jarduteko edo jatetxeko sukaldean lan egiteko. Tel. 679-910991.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez. Tel. 672-307618.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 628-740765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-110716.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita gauez ere. Tel. 660-514858.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 602-057896.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 680-526228.
– Geriatria formazioa duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zein asteburuetan. Tel. 645-366850.
– Neska eskaintzen da asteburuetan dendan jarduteko edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 638-002368.

### 4.2. Langile bila

– Drogetenitturri aldizkariak koordinatzailea behar du. Euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea eta kazetaritza ikasketak izatea baloratuko da. Bidali curriculum-a urriaren 6a baino lehen: drogeten@gmail.com
– Neska euskalduna behar da Osintxuko baserri batean nagusia zaintzeko. Autoarekin, ahal bada. Tel. 943-767364 eta 608-737053 (deitu 15.00etatik 17.00etara).
– Elektrizista, iturgin edo antzeko ofiziotan esperientziaduna behar da. Bidali curriculum-a, argazkiarekin: ezenarro13@gmail.com
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 642-335112.
– Laguntzarako emakumea (30-45 urte tartekoa) behar da. Interna. Esperientziarekin. Tel. 629-053402.
– Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali kurrikuluma: davidtubolab@gmail.com
– Kamarerak/oak behar dira Eibarko jatetxe batean. Tel. 667-908392. Alaia.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaerak

– Ingeniaritza Mekanikoko 2. mailako ikasleak klase partikularrak behar ditu, Mekanika eta Elektronika ikasgaietarako. Premia handia. Tel. 653-748088.

### 5.2. Eskaintzak

– Magisteritza duten bi neska eskaintzen dira HH, LH eta DBHko klase partikularrak emateko. Tel. 667-261248 (Leire) eta 620-694757 (Joana).
– Diplomatura mailako titulудun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 662-283676.
– Unibertsitate ikasketak egindakoek klase partikularrak ematen dituzte. Taldeka edo banaka. Beherapen bereziak. Tel. 687-033834. Nerea.
– Ingeles Filologian lizentziatua eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 688-650752.
– 24 urtetan Ingalaterran bizi izandakoak bere burua eskaintzen du ingelesa praktikatzeko. Tel. 679-910991.
– LHko ikasketak amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da LHko umeei klase partikularrak emateko. Tel. 634-430647.
– Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko (arreta arazoak, ikasteko zailtasunak). Esperientzia. Ekonomikoa. Tel. 625-019711.
– Alemanierazko klase partikularrak ematen ditut. Metodo erraza eta atseginа. Ikasleen trukaketa eta EOI-rako azterketen prestaketa. Tel. 670-793312.
– Ingeniari industrialak klase partikularrak ematen ditu. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitatea. Talde murriztuak. Tel. 669-622642. Mireia.
– LH eta DBHko klaseak eskaintzen dira. Ikasgai guztiak. Klaseak bakarka egiteko aukera. Tel. 652-757926.
– Ingelesezko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Irakasle natiboa. Tel. 652-763264.
– Haur Hezkuntzan eta Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakasleak klase partikularrak ematen ditu LHko umeentzat Isasin. Tel. 663-006640. Ane.
– Ingeniari industrialak (tituloduna) klase partikularrak ematen ditu. Tel. 695-756447.
– Ingeniaritza tituludun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Orbea Zeus Euskaltel bizikleta salgai. Aluminiozkoa, 2000. urtekoa, 54 M tallakoa, Shimano 105 Triple gurpilak. Rigido Xone Pro-line. 390 euro. Tel. 626-464422.
– 0'90eko sukaldea salgai, gas-bonbonak eramatekoa eta labearekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua. Berriak. Tel. 617-688311.
– Umeendako karro-silla salgai. 90 euro. Tel. 632-569245. Waris.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Irailaren 13an, zapatuan, Eibarren hartutako taxian nire Samsung S2 mugikorra jaso zuen mutilari: bateriarik gabe egongo da eta mesedez deituidazu. Eskerrik asko. Tel. 666-329728. Joana.
– Zilarrezko eskumuturrekoa aurkitu zen Arrateko txosnan. "Itsaso. 1998-III-25" du grabatuta. Tel. 655-987126.

### 6.4. Bestelakoak

– Nazkatuta erosketak egiteaz? Pisu larregi? Amaitu da sufrimendua. Erosketak egin eta etxera eramango dizkizugu. Tel. 695-718855. Lorea.




iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

## Alemana, frantsesa, ingelesa, italiera eta txinera

### Ordutegi bereziak!

- Talde murriztuak mailaka
- Komunikazio klaseak
- 2 egun astean (astelehena eta asteazkena edo asteartea eta osteguna)
- 3 ordu astean (Goizez eta arratsaldez)

2014-2015 kurtsoa urriaren 1ean hasiko da eta ekainaren 19an bukatuko da

**Industry Language Services**

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

www.ils.es

ILS

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES

Makina Erremintaren Institutua / Instituto de Máquina Herramienta



Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak • Argazkidendak • Argiztapena • Arkitek-
toak • Aroztegiak • Arr degiak • Aseguruak • Asesoriak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak
• Bidaiak Bideo ak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego tresneria • Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea
• Elektrodo Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoak • Estetika •
Farm Funerariak • Garagardotegiak • Garraioak • Gasolinde-
giak • Haurtzaindegiak • Euskaltegiak • Ikastetxeak • Hote-
lak mobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jan-
tzid kzioa • Kiroldendak • Koltxoidendak • Komunikabide-
ak ak • Leihoak • Lentzeria • Liburudendak • Loradendak
kuntza • Analisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika
Oftalmologoak • Otorrinoak • Podologoak • Psikia-
degiak • Optikak • Ortopedia • Pertsianak • Pintu-
Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Ta-
iak • Torlojugintza • Zeramika • Abokatuak • Aisial-
dia dak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak •
Arrainde k • Belardendak • Bidaiak Bideo erreportaiak
• Bideo • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkar-
teak oak • Estetika • Farmaziak • Ferreteriak • Fo-
tokopiad oak • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozotegiak
• Grafikag etxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegiak
• Industria ridendak • Jantzidendak • Jatetxeak • Jostailu-
dendak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpreso-
reak • Kor endak • Loradendak • Makina saltzaileak • Mar-
goak • Mo ermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozi-
menduak oak • Podologoak • Psikiatria • Psikologoak • Mer-
tzeriak • Optikak • Pertsianak • Pinturak • Pizzeriak • Plastiko-
ak • Prents Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta
piercing • Torlojugintza • Zeramika




**GIDA 2015**

943 20 67 76 - 943 20 09 18

# EIBARko ETXE GUZTIETAN

eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentru... guztietan banatzen da

# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA

# IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA





Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza
eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria.
**Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua.
**Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Inplantologia Masterreko Irakaslea.
**Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea.
**Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**

Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. **Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.
**Anibal Alonso Doktorea.**

## ETENGABEKO ORDUTEGIA

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara

**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkartea**
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguzu!

asociación de comerciantes de eibar
eibarko dendarien elkartea



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...
Galdetuiguzu!







IRAZABAL
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA** **Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR -** Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com